



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2001eko abenduaren 19a

127 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Allon industrialde bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, ordenagailuak erosteko laguntza kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, lurzatieen berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, lurzatieen berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, zahar-etxeen proiektuen finantziaioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Lizarrako alkohol-fabrikari ibilgailuak sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, plan soziosanitarioko fase pilotua abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

I S A I L A:

Parlamentuko Jarduera:

- 2001eko azaroan egindako bilerak (11. or.).
- 2001eko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Allon industrialde bat sortzeari buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Allon industrialde bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Allon industrialde bat sortzeari buruz. Hona Industria, eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Departamentu honetan ez dago jasota espediente formalik batere dagoenik Allon industrialde bat sortzeari buruz.

2. NASUINSAk, berriz, bileraren bat egin du Alloko Udalarekin 2000-2001 urteetan. Bilera horietan, industrialde bat sustatu nahi zutela jakinarazi zitzaion udalari.

NASUINSAk xehetasun guztiak eman zizkien udal ordezkariari Jarduera ekonomikoetako poligo-noak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legearen arabera laguntzen lerroari buruz, bai eta behar den azterlan teknikoak egiteko eman beharreko pausoei buruz ere (topografia, geoteknia, lur-mugimenduak), baita aurreproiektu mailan ere; halaber, bideragarritasun azterlanari buruzko informazioa ere ematen da (kostuari buruzko aurreikuspenak, ondorioak, salmenten prezioak eta plana, finantza kostuak eta abar).

Halaber, aukera eman zitzaien industrialdeari buruzko edozein kontsulta eta laguntza teknikoa eskatzeko.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Ordenagailuak erosteko laguntza kanpainari buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ordenagailuak erosteko laguntza kanpainari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du ordenagailuak erosteko laguntza kanpainari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak ordenagailua erosteko finantzatze-kanpainaren edukaren berri eman al zion, maiatzaren 28ko iragarkia baino lehenago, horrelako ekipoak saltzen dituen establezimenduren bati?

Ez.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al daki ordenagailuen salmentan diharduten establezimendu batzuek zein bidetatik jaso ahal izan duten, maiatzaren 28ko iragarkia argitaratu aurretik eta, beraz, pribilegioz, ordenagailua erosteko finantzatze-kanpaina publikoaren edukaren berri?

Ez.

3.- Bost entitate laguntzaileekin sinaturiko hitzarmenetan, iragarki ofiziala hilaren 28an argitaratu aurretik entitate horiek informaziorik eman ahal ez izatea ezarri al zuen Nafarroako Gobernuak?

Hitzarmena bost finantza-entitateekin eta ekimenean laguntza ematen duten bi enpresa operadoreekin (Telefónica eta Tenaria) sinatu zen. Hitzarmena sinatzeko ekitaldian ahoz eta espresuki eskatu zitzaien sinatutako hitzarmenari buruzko publiziterik ez egiteko, zeren deialdi ofiziala Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar baitzen, eta euskarara itzuli behar horrek bizpahiru aste eramanen zuen.

4.- Finantza-entitateren batek bere bezeroren bati iragarki ofiziala hilaren 28an argitaratu aurretik ordenagailua erosteko finantzatze-kanpainaren edukaren berri eman izan balio, finantza-entitate horrek arauren bat hautsiko zuen? Nafarroako Gobernuak ildo horretatik urratsen bat emateko asmorik al dauka?

Orain artean ez dago esaterik hitzarmena sinatu zuten entitate laguntzaileek (banku zein operadore) hartan ezarritakoa urratu dutenik ez eta publiziterik ez egiteko konpromisoa ere, eta horrenbestez, uste dugu ez dela horri buruzko inongo neurririk hartu behar.

5.- Ordenagailu-salmentan diharduten zenbait establezimenduren mesedetan izandako pribile-

giozko informazioaren filtrazioa, ordenagailua erosteko finantzatze-kanpaina publikoaren edukari buruzkoa, non gertatu zen ikertzeko asmorik ba al dauka Nafarroako Gobernuak?

Nafarroako Gobernuaren ustez salatutako egoerak ez du horretarako biderik ematen.

6.- Publizitate pribatuan Nafarroako Foru Komunitatearen ikur ofizialak erabiltzeari dagokionez, arau-hausteren bat al da hori? Nafarroako Gobernuak ildo horretatik urratsen bat emateko asmorik al dauka?

Horri buruz esan beharra dago ezen Nafarroako ezutuaren eta ikurrinaren erabilera arautzen duen azaroaren 28ko 248/1986 Foru Dekretuak ezartzen duela produktuen bereizgarri gisa erabiltzen ahal dela Nafarroako ezkutua eta ezkutua erabiltzeko interesa dutenek horretarako baimena eskatu behar diotela Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, eta kontseilariak hartuko duela eskaeren gaineko erabakia.

Halatan, nik, kontseilari naizen aldetik, iragarkia Foru Komunitateko egunkari batean argitaratu zen egunean berean, 2001eko maiatzaren 28an alegia, idatziz eskatu nion Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari informatzeko ea entitate pribatu batek Nafarroako Gobernuaren ikur ofizialak erabili ditzakeen publizitatea egiteko eta, hartara, enpresa horrek inolako erantzukizunik zuen ala ez.

2001eko ekainaren 1eko idatziaren bidez, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Komunikazio Zerbitzuko zuzendariak hauxe erantzun zidan:

“Nafarroako ezkutua baimenik gabe erabili dela jakin dugunetan legez, oraingoan ere, Komunikazio Zerbitzuko funtzionario bat enpresarekin harremanetan jarri zen, eta enpresa pribatuek Nafarroako ezkutua erabili ahal izateko legeak ezartzen duen prozedura zein den azaldu zien. Enpresak erantzun zuen ahalik eta lasterren eskatuko zuela baimena eta baimena jaso bitartean kendu egingen zuela ezkutua bere publizitatetik.”

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria,
José Ignacio Palacios Zuasti

Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Indarrean dagoen jendaurreko ordutegia egokia da erabiltzaileen eguneroko beharrezanean erantzuteko. Egungo espazio fisikoa, berriz, ez da nahikoa.

2.- Aztertzen ari gara liburutegia leku handiago batera eramateko aukera, liburutegi publikoen beharrezanean buruzko programan jasotzen diren kokapen, eraikigarritasun eta moldagarritasun

eskakizunak betetzen dituen beste batera hain zuzen. Hori dena Corellako Udalarekin lankidetzan eginen dugu, hura baita liburutegi berrirako eraikina edo orubea jarri behar duena.

3.- Laneko bajagatik, eszedentziagatik edo lanari buruzko legerian jasotako beste zerbaitengatik hutsik geratzen diren lanpostuak aldi baterako kontratuen bidez betetzen dira. Horretarako, liburutegiko arduradunen azken oposizioa gainditu baina lanposturik lortu ez zutenek osatutako zerrenda baliatzen da, eta zerrenda hori agortzen bada, INEMekin batera eginiko beste kontratazio zerrenda bat dago. Kontratazioak Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak kudeatzen ditu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez ditu betetzen oporrak direla eta hutsik geratzen direnak. Salbuespena salbuespen, liburutegian egoera zinez berezia gertatzen bada kontratatzen dira langileak.

4.- Corellako liburutegi publikoan dagoen funtzionarioak 35 orduko lanaldia du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Lurzatien berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak lurzatien berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du lurzatien berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Lurzatien berrantolamenduko prozedura batean gertatu ohi den bezala, aldaketa batzuk izan

dira 2000. urteko ekitaldirako aurreikusitako gastuen eta benetan egindako gastuen artean.

“Jabetzaren eta lurzatie berrantolamenduko obrak” izeneko lerroan, 1.214.214.630 pezetako obrak egin dira. Exekuzioaren beherakada hori eguraldi arrazoiei eta beste behar batzuk betetze-ko lerro-aldaketei zor zaie nagusiki. Hartara, ondoko herrietan obretako inbertsioak uste baino txikiagoak izan dira:

Eusa: 40,04 milioi gutxiago.

Ihaben: 25,02 milioi gutxiago.

Nabazkoze: 97,98 milioi gutxiago.

Lezaungo aldeko obrak geldirik daude, Udalak errekurtsio bat aurkeztu duelako; hori dela eta,

ezin izan da gastatu aurreikusitako 46,59 pezetako kopurua.

“Azterlan eta proiektuak” izeneko lerroan, 116,76 milioi pezeta gehiago gastatu dira, eta material teknikorako lerroan ere gehiago gastatu da (39,94 milioi pezeta); hori guztia, kasuan kasuko proiektuak, akordioak eta oinarriak prestatzeko gastuengatik eta beharrezkoak ziren kartografia gastuengatik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Lurzatie berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak lurzatie berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du lurzatie berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruzko galdera buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

2001eko ekitaldia bukatu ez denez, eskatutako informazioa aurreikuspenen arabera igorri dugu, baina lurzati antolamenduko prozesu batean gerta daitezkeen gorabeherekin alda daiteke.

Obretako inbertsioen lerroan, gastuak 1.693 milioi pezeta egitea aurreikusi da. Ondoko jarduketetan gastatuko da: Mendabia II, Murillo El Fruto, Gares, Arguedas, Cabanillas, Viana II; proiektu osagarriak ondoko herrietan: Zirauki, Errea, Artaxoako Hegoaldea, Azagra, Dicastillo eta Latasa; beste ekitaldi batzuetako urte anitzeko proiektuak, zuinketak, ingurumenaren arloko lehengoratzak eta abar...

Azterlan eta proiektuen lerroan 200 milioi pezetako gastua aurreikusi da; material teknikoari dagokionez, berriz, 25 milioi pezetako aurreikuspena dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Zahar-etxeen proiektuen finantziarioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak zahar-etxeen proiektuen finantziarioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du zahar-etxeen proiektuen finantziarioari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Zahar-etxeetarako zenbat proiektu finantzatu zituen Nafarroako Gobernuak 2000n?

2.- Zein herriri dagozkio proiektu horiek?

3.- Zenbat diru ordaindu zuen Foru Komunitateak? Zeintzuk dira udalei zegozkien zenbatekoak?

2000n zehar, Nafarroako Gobernuak hiru toki entitatek sustaturiko beste hainbeste egoitza erakitzekeko dirulaguntzak eman zituen:

- Fustiñana eta Cabanillasko Udalak (egoitza eta eguneko zentroa).
- Milagroko Udala (egoitza eta eguneko zentroa).
- Otsagabiako Udala (egoitza eta eguneko zentroa).

Entitatea	Inbertsioa, guztira	Nafarroako Gobernuaren diru ekarpena	Entitateen ekarpena
Fustiñana eta Cabanillasko Udalak	274.560.000 pezeta	137.280.000 pezeta	137.280.000 pezeta
Milagroko Udala (*)	110.985.232 pezeta	55.492.616 pezeta	55.492.616 pezeta
Otsagabiako Udala	189.499.920 pezeta	94.749.960 pezeta	94.749.960 pezeta

(*) Dirulaguntza ezeztatu egin da, obrak ez baitira 2000n hasi.

Nafarroako Gobernuaren ekarpena, hiru kasuetan inbertsio osoaren % 50 egiten duena, 2000. urterako zerbitzu sozialen arloko inbertsioetarako deialdiko 4. oinarrian jasota dago (abenduaren 17ko 196/99 Foru Agindua).

Kasu guztietan, aurkezturiko proiektuak aipatu deialdiko 8. oinarrian ezarritako balorazio irizpideen arabera baloratu dira.

4.- Nafarroako Gobernuak 2001ean zenbat zahar-etxe-proiektu finantzatzeko asmoa dauka?

5.- Zein herriri dagozkio proiektu horiek?

6.- Zenbat diru ordainduko du Foru Komunitateak? Zeintzuk dira udalei dagozkien zenbatekoak?

2001erako gizarte zerbitzuen arloko inbertsioen deialdia (azaroaren 28ko 79/2000 Foru Agindua), jada erabakita dago:

- Kasedako Udala (egoitza eta eguneko zentroa).
- Martzillako Udala (egoitza eta eguneko zentroa).
- Mendabiako Udala (egoitza eta eguneko zentroa).
- Seresgera (Iruñean, egoitza bat eta 2 eguneko zentro).

Entitatea	Inbertsioa, guztira	Nafarroako Gobernuaren diru ekarpena	Entitateen diru ekarpena
Kasedako Udala	267.377.028 pezeta	133.688.514 pezeta	133.688.514 pezeta
Martzillako Udala	235.684601 pezeta	117.842.300 pezeta	117.842.301 pezeta
Mendabiako Udala	286.528.885 pezeta	143.264.442 pezeta	143.264.443 pezeta
Seresgera	1.450.691.415 pezeta	435.207.424 pezeta	1.015.483.991 pezeta

Nafarroako Gobernuaren ekarpenak inbertsio osoaren ehuneko 50 egiten du hiru toki entitateetan eta ehuneko 30 entitate pribatuaren kasuan; ekarpen horiek 2001. urterako zerbitzu sozialen arloko inbertsioetarako deialdiko 4. oinarrian daude jasota (azaroaren 28ko 79/2000 Foru Agindua).

Kasu guztietan, aurkezturiko proiektuak aipatu deialdiko 8. oinarrian ezarritako balorazio irizpideen arabera baloratu dira.

7. Zer egoitza-proiektu ukatu dizkie Nafarroako Gobernuak toki entitateei legegintzaldia hasi zenetik? Kasu bakoitzean, zein izan da ukoaren arrazoia?

Ondoko eskariei uko eman zaie, azaltzen diren arrazoiengatik:

2000. urtea

Azagrako Udala: Epez kanpo aurkezteagatik onartu gabeko eskaria.

Martzillako Udala: Eskarian ez dago behar adina justifikaturik egoitza bat eraikitzeke beharra eta zalantzan geratzen da halako egoitza baten bideragarritasuna, oso zail gertatuko litzatekeelako laguntza behar dutenentzako plazei eustea, behar diren langileen ratioa dela eta.

Bestalde, baliabide hori eskatzen dutenen kopuruari, kudeaketa planari, eman beharreko zerbitzuen multzoari eta analisi ekonomikoari buruzko informazioa oso eskasa da.

Hala eta guztiz ere, 2001ean proiektua aintzat hartu da, antzemandako hutsak zuzendu direlako.

2001. urtea

Ribaforadako Udala: Udalarentzat proiektu garrantzitsua eta tamaina handikoa da, baina ezin da aintzat hartu, ondoko arrazoiak direla eta: aurrekontuan ez dago diru aski, beste proiektu batzuei aurre egitea baldintzatzen duelako; herritik oso hurbil beste egoitza batzuk daude; nabarmen gainditzen du inbertsioaren kopurua, deialdi honetan aurkeztu eta antzeko ezaugarriak dituzten beste proiektu batzuekin alderatuta.

Atarrabiako Udala: Eskaria ez da onartu (epez kanpo aurkeztu zen).

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Lizarrako alkohol-fabrikaren ibilgailuak sartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Lizarrako alkohol-fabrikaren ibilgailuak sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Lizarrako alkohol-fabrikaren ibilgailuak sartzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Lizarrako alkohol-fabrikatik herri horretako saihebidera bitartean dagoen ibilgailu-trafikoak arrisku larria sortzen die herriko biztanleei, herriko alde zaharra zeharkatzen baitu. Inori ez zaio ohar-kabea gelditu herriko zona horretatik egunero 80 kamioi baino gehiago behar baino gehiagotan igarotzeak arriskuan jartzen dituela Lizarrako biztanleak, hori gertatu beharko ez litzatekeen arren.

1. Aipaturiko enpresatik Lizarrako saihebiderraino zuzeneko irtenbiderik egiteko asmorik ba al dauka zure departamentuak?

2. Baiezkoan, zein ekitalditan?

3. Ezezkoan, ez al du beharrezkotzat jotzen hori lehentasunez egitea?

Lizarrako alkohol-fabrikara sartzeko egungo bideak jarduera industrial baten zerbitzurako da, eta jarduera horrek eragiten du gehien bat alde horretako trafikoa, bereziki ibilgailu astunena, eta ez da Nafarroako errepideen sarekoa, udal eskumeneko bide bat baizik.

Beraz, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eskumenekoa ez denez, ezin du inongo jarduketarik egin bertan. Ez da baztertzen, halere, departamentu honek zenbait lan egiteko hitzarmen batean parte hartzea, bestelako entitatek edo erakundek finantzatzen badute kostuaren zatirik handiena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 27an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako dirulaguntzei buruz. Hona Industria, eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andreak erantzuna:

1. Hona Iratxe Elkarteari emaniko dirulaguntzaren desglosea:

– Guztira, 14.170.000 pezeta eman zaizkio; hona kontzeptuak:

1.770.000: Funtzionamendu gastuak.

9.000.000: Teknikarien gastuak.

2.000.000: Aholkularitza juridikoa.

1.400.000: Argitalpenak.

– Afiliatuen kopurua ez da diruz lagun daitekeen kontzeptu bat, baizik eta eskari batzuei lehenetasuna emateko kontuan hartzen diren 9 irizpideetako bat.

– Dirulaguntzaren eskaria baloratzeko kontuan hartu diren 2000. urteko jardueretan, urtarrilaren 15ean jasotako oroit-idazkian ezarritakoaren arabera, elkarteak egindako jardueri buruzko ondoko datuak azpimarra daitezke:

- 17.089 kontsulta eta erreklamazio hartu dira elkarteak Iruñean, Lizarran eta Tuteran dauzkan zentroetan.

- 6 argitalpen.

- 4 triptiko.

- 697 parte-hartze irratian eta telebistako saioetan.

- Arbitraje Batzordeari aurkeztutako kasuen ehuneko 70etan, elkarteko legelarien txostenak erabili dira.

- 24 erakunde-organismotan hartzen du parte elkarteak.

- 126 prentsa-ohar, azterlan, txosten eta abar egin ditu.

2. Elkartearen dirusarrera eta gastuei dagokienez, ondokoa zehaztu behar da:

Diruz lagundutakoaren zenbateko ehuneko dagokio atal bakoitzari?

Funtzionamendu gastuak: aurrekontuan jasotakoaren ehuneko 13.

Teknikarien gastuak: aurrekontuan jasotakoaren ehuneko 33.

Aholkularitza juridikoaren gastuak: aurrekontuan jasotakoaren ehuneko 40.

Argitalpen gastuak: aurrekontuan jasotakoaren ehuneko 10.

Emandako dirulaguntza guztira 2001. urterako onetsitako aurrekontuaren ehuneko 24 da.

– Funtzionamendu, langile tekniko, argitalpen eta prestakuntza gastuen desglosea.

Desglose hori lortzeko emandako dirulaguntzaren ehunekoa eta jasotako diru guztia elkarrekin gurutzatuz lor daiteke.

– Elkarteak kuota zuzenen bitartez jasotako dirusarrerak:

Elkartearen dirusarrerari dagokienez, elkartearekin hitz egin beharko duzu datu horiek lortzeko.

Iruñean, 2001eko uztailaren 4an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Plan soziosanitarioko fase pilotua abian jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak plan soziosanitarioko fase pilotua abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Foru Plan soziosanitarioko fase pilotua abian jartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Foru Plan soziosanitarioa 2000ko ekainaren 27an hartu zuen aintzat Gobernuak. Plan horrek xedatzen du fase pilotu bat abiaraziko dela Nafarroako zenbait osasun eskualde oinarrizkotan.

Fase pilotua Nafarroako Gobernuak hasiera batean onetsitako dokumentu batekoa denez, hura gauzatzea Gobernuaren eskumena da; zehazki, Osasun eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuena, Foru Plan soziosanitarioa egitea agintzeko Nafarroako Gobernuak 1999ko abenduaren 13an hartutako erabakiak eta jadanik aipatu den 2000ko ekainaren 27ko erabakiak xedatzen zuten bezala.

Fase piloturako bideratutako baliabideei dagokienez, esan behar da gaur egun prestakuntza ezberdina (medikuak, erizainak eta gizarte-langileak) eta menpekotasun funtzional ezberdina daukaten profesionalak daudela, eta jadanik lanean daudela eskualde oinarrizkoetan, esparru soziosanitarioan. Profesional horiek dira oinarrizko osasun laguntzako taldea eta kasuan kasuko eskualdeko gizarte-zerbitzuak osatzen dituztenak.

Ez da ahaztu behar planaren helburu dela, besteak beste, profesional ezberdinen artean komunikazio-bideak ezartzea eta erakunde ezberdinen arteko koordinazioa pertsonen borondate onaren arabera izan dadila ez uztea.

Alderdi operatiboari dagokionez, abiapuntua oinarrizko eskualde bakoitzean jadanik lanean ari

diren baliabideek osatzen dute, oinarrizko osasun laguntzako taldeak eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileek. Dena den, ez da alde batera uzten profesional-kopurua zenbait kasutan handitu beharraz pentsatzea, fase pilotua abiarazten denetik epe ertain bat igarotakoan, eta justifikatuta baldin badago. Nolanahi ere, fase pilotuari buruz egiten den ebaluazio jarraituaren arabera kio izanen da hori.

Bigarren lan-maila batean bai, egonen dira erreferentziako langile teknikoak, Osasun eta Gizarte Ongizateko Departamentuetatik fase pilotuaren garapen eta ebaluazioaren jarraipena egiten.

Foru Plan soziosanitarioko koordinatzaileari dagozkio honako eginkizun hauek, abuztuaren 21eko 284/2000 Foru Dekretuan zehazten den bezala (dekretu hori aldatu egin zuen, berandua-g, martxoaren 26ko 73/01 Foru Dekretuak):

- Planaren arlo teknikoaren erantzukizuna bere gain hartzea eta Batzorde Teknikoak, Jarraipen Batzordeak, Osasun Zuzendaritza Nagusiak eta Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusiak agintzen dizkioten lan edo/eta ekintzak burutzea.

- Oinarrizko Osasun Eskualdeetako laguntza soziosanitarioko koordinazio-guneen funtzionamendua sustatu eta koordinatzea.

- Batzorde Teknikoaren eta sortzen diren azpi-batzordeen eta lan taldeen funtzionamendua ego-kia eta zuzena dela aseguratzea.

- Plana behar bezala gauzatu eta garatzen dela bermatzeko behar diren jarduketak egin eta gainbegiratzea.

- Administrazioak garatzen dituen beste programa batzuekin koordinatzeko lanetan parte hartzea, baldin eta, haien ezaugarriak ikusita, plan hori garatzeko lagungarriak baldin badira.

- Kasuak kudeatzeko eta ebaluatzeko baliabideak sortzen laguntzea.

Beraz, begi-bistakoa da planaren koordinatzaileari dagokiola fase pilotua kudeatzearen ardura.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko uztailaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2001eko azaroan egindako bilerak

MAHAIA

26 eta 28an.

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

5, 6, 7, 12, 15, 19, 24 eta 26an.

OSOKO BILKURA

20an:

– Nafarroako Kontseiluko kide berria hautatzea.

– Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako “Berrikuntza hiria” sustatzeko, Sarrigurengo jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Batasuna eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko taldeek aurkeztu dituzte osoko zuzenketak.

– Saltoki handien gaineko zerga bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuetako Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Jarduera ekonomikoen gaineko zerga gisa ordaindutako kuoten kenketari buruzko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Unión del Pueblo Navarro, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Askotarikoa Parlamentuko taldeek aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bertaratzeko unibertsitate ikasketak Erriberan ezartzea nahi duela.

– Galdera, Europar Batzordeak “Nafarroako aratxea” deituraren onarpena bertan behera utzi duen ala ez ba ote dakien jakiteko. Úriz Iglesias jaunak aurkeztu du.

27an:

– Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatzea

– Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua irakurketa bakarrean eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenaren irizpena, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuaren irizpena, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamenaren irizpena, Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsia, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nekazaritzako ustategien erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Lankidetzeta hitzarmenaren proiektua, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarrailpen Batzordearen eginkizunak arautzekoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Lankidetzaren hitzarmenaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzeko, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Lankidetzaren hitzarmenaren proiektua, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzeko, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da ez dadin hasi tramitatzen 2002ko otsailaren 1a baino lehen Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektua.

– Nafarroako Foru Komunitatean behi-azien-daren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko Batzorde Bereziak 2001eko urriaren 23an onetsitako txostena berrestea.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

7 eta 9an:

– Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzeko Foru lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

8an:

– Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

16an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, "Eztabako tunelak" izenekoak eraiki ahal izateko proiektu teknikoak azal dezan.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Ziordiko lurrazpiko pasabideari buruz informazioa eman dezan.

OSASUN BATZORDEA

9an:

– Lan bilera. Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko zuzendari Gallo Fernández jaunak azalpenak emanen ditu Bideko Ama Birjina Ospitalean izaniko legionella agerraldia dela-eta eginiko jarduketari buruz.

15ean:

– Osasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, koitoaren ondoko pilula doan banatzeagatik Andrea taldeari irekitako espedienteari buruz informazioa eman dezan.

– Osasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Lizarra-Azagra eskualdean osasun garraioaren zerbitzua adjudikatzeko prozesuari buruzko informazioa eman dezan.

ERREGELAMENDU BATZORDEA

12an:

– Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen estatutua aldatzeko proposamena eztabaidatu eta bozkatzea.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

13an:

– Foru parlamentari Milagros Rubio andreak oa) aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, gure erkidegoko gobernu ordezkaria premiatzen da Aragoiko Autonomia Erkidegoan etorkinen erregularizazioan aplikatzen diren irizpide berberak Nafarroan aplikatu ditzen.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

13an:

– Lan bilera. Ardoaren sektoreari buruzko informazioa ematera agertuko dira nekazaritza arloko erakunde hauek: UAGN, EHNE, UPA, "Nafarroako ardoak" jatorrizko deitura.

13an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eska-

tuta, ardoaren sektoreari laguntzeko aurreikusiriko neurriei buruz informazioa eman dezan.

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, artoaren superproduktzioa erregionalizatu ez izanak eragindako egoerari buruz informazioa eman dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

13an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren eta Hezkuntza zuzendari nagusiaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, azaltzeko Burlatako Ermitaberri ikastetxearen egoera.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

14an:

– Kontuen Ganbarako lehendakariaren agerraldia, Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua dela-eta emandako txostena azal dezan.

21ean:

– Lan bilera. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, egoki iruditzen zaizkion zuzendari nagusi eta teknikariek lagunduta, 2002ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua azalduko du.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEA

14an:

– Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren eta Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Ezkizozko Pirotécnica Oroquieta enpresari buruz informazioa eman dezan.

– Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, ehizaren plan estrategikoa noraino bete den azal dezan.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN BEHI-AZIENDAREN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO BATZORDE BEREZIA

16an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura, eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia.

2001eko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

2an:

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Hauteskundearen Araubide Orokorreari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritarioa ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko.

– Proposamenak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearenak, haien eztabaida eta bozketa egiteko Nafarroako inmigrazio politikaren irizpide nagusiak aztertzeke Batzorde Berezian.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez Herri-lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia eskatu du, Iruña-Logroño autobideko Villatuerta eta Errioxako muga bitarteko tartetako trazadurari buruzko aurreproiektu, proiektu eta gainerako lanen aurreikuspen eta egoeraren gaineko informazioa eman dezan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Kontuen Ganbarako lehendakariaren agerraldia eskatu du, 2000. urteko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko behin betiko fiskalizazio txostenaren edukiaren berri eman dezan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako Liburutegi Publikoetako liburuzainen elkarre baten ordezkariekin lan bilera egitea eskatu du, informazioa eman dezaten Nafarroako Foru Komunitatean egin diren lege proposamenei eta liburutegien ereduari buruz.

